

# Komunaren eguna



ARITZ GALARRAGA

Zutabe hau komunaren nazioarteko egunean idatzita dago –egunean, ezen ez komunean bertan–. Komuna, noski, baskargela ere deitu hori, norbere eginkariak egiteko lekua –eta ez, adibidez, Parisekoa, 1871n Frantziako hiriburuan agintea izan zuen gobernu iraultzailea–. Ez kezkatu, benetan, ez da garrantzitsua jakitea noiz izan zen egun hori: atzo izan zitekeen, edo bihar, egunero da zerbaiten eguna –gaur izatea zailagoa litzateke; jakingo genuke bestela, hain da handia ditxosozko egunekin ematen duten alamera–. Komunaren eguna, beraz, arazoa baita larria: toallatxoak edo zapi umelak, bastoitxoak edo makillajea kentzeko kotoia, ezin dira komunera bota, tapoiak eragiten dituzte estolda eta kolektoreetan. Mezua: komuna ez da zulo beltz bat –badaezpada ez nuke begiratuko hainbat etxetakoa–.

Ai, komuna. Zenbat une gogoangarri pasako genituen bertan –atseginak batzuk, beste batzuk estuagoak–. Horregatik bikain iruditzen zait Nazio Batuen Erakundeak komunaren eguna ospatzea. Zalantza gehiago sortzen dizkit yogaren egunak –zergatik ez tai-xi, feng shui eta abarrekoena?–. Edo atunaren egunak –zer gertatzen da hegaluzearekin?–. Bitxia egiten zait itsasoko jendearen eguna –zer da, itsaslamina, uhandreena?–. Edo eskifaiaidun espazio-hegaldiena –diskriminatzen ditu, argiki, eskifaiairik gabeko espazio-hegaldiak–. Argiaren eguna ere badago –eta ez, ez da urriaren 12a–. Nelson Mandelaren eguna –noizko Arnaldo Otegiarena?–. Adiskidetasunaren eguna ere bai –eta ez ozpin-tasunarena–, gaztetasunaren eguna –eta ez adin ertainarena–, demokraziarena –eta ez monarkia parlamentarioarena–. Pentsa, filosofiak eta telebistak eguna konpartitzen dute. Broma gutxi, Nazio Batuen Erakundeak ospatzen dituen egunak baitira horiek guztiak, komunarena barne. Egunero baitago zer ospatua. Komunera erregulariki eta pozik joaten garela, luze gabe. ●



ADUR

## “TORTURATZAILEEK NIRE EMAKUME GORPUTZA GUDA ZELAI BIHURTU ZUTEN”

### NEKANE TXAPARTEGI ESTRAZIO ARRISKUAN DA SUITZAN

“Orduan torturatzaileek nire emakume gorputza guda zelai bihurtu zuten eta orain, bizi-iraundako tortura sexista salatu eta horren aurka borrokatzen dudalako jazarzen naute! (...) Ikusiko dugu zein aldetan kokatzen diren Suitzako agintari ‘neutralak’ oraingoan, torturaren aurka edo alde! Ezin baita orain artean bezala ‘neutralitatearen’ izenean torturatzaileekin kolaboratuz jarraitu”. **ASTEASU (2019/11/20)**

